

Juan San Martin

Euskaltzaina eta idazlea

## Su etena

■ ETA-k erabaki duen su etenak itxaropena eta kezka sortu ditu bazterretan, batzuren abegi ona eta beste batzuren mesfidantza artean kezka banari da gizarte gehiengoaren baitan, eta hori ez da harritzekoa.

Giza etika hausten denean, normala da gizartearen moral balioen galera eta hortik noraeza. Odol isurketaren eragina, gizartearen alderik gehienetan gaizki ikusia izaten da. Bizitza natura orekaren barnean berez sakratutzat hartzen denez gero, nor ausartzen da bat-batean iritziak aldatzera? Zer litzake gizadia elkarren arteko hilketekin?

Oroi dezagun gure esaldi zahar harek dioena: otsoak ez du otsokirik jaten. Eta mendak zehar moralezko etika hori ikasbidetzat gorde duen herri batean su etenaren berriak zalantzak sortzea ez da harritzekoa.

Gure herriari, bereziki abertzaletasunari, kalde handia ekarri dio batzuren jokaeraitsuak. Itsukeriak ezer bereizten ez duenez, maizenik etxekalde bihurtzen bai da.

Demokrazian, on har ezinezkoa da indarkeria, zeren ideiak arrazoiz defendatu behar bai dira. Gurea bezalako herri batek arrazoirik aski du Europaren Batasunera abiatu garen garai honetan, bere toki egokia aurkituz abiadura horren barnean kokatuz aurrera joan ahal izateko.

Baina, nork zer dion aditzeaz, argi ikus daitake su etenaren berria nork hartu duen baikortasunez eta nork ezkortasunez.

Bakea nahi baldin badugu, esan beharrik ez da baikorren bidetik joan behar garela. Ezkorrek ere beraien arrazoiak izango dituzte, noski.

Baina, horien jokaera zalantzagarriagoa da gure herriaren ikuspegitik.

Historia zehar zer gertatu zaigun jakitea aski da.

Demokraziaruntza abiatu ginen une beretik ETA-k egin digun kaltea nabaria dela esango nuke. Giza lege guzien gainetik ari izan da hilketaz, bahiketaz, beraien ustezko iraultzarako enpresariei zergak jartzen eta kale-borrokarekin sekulako kalteak egiten. Izan ere, kalte handiak egin dira eta urteak behar dira hori normalkuntzara zuzentzeko, zeren zoritxarrez, gazte askok beste jokabiderik ez bai dute ezagutu. Politikatzat indarkeria erabili duten talde horien buru direnek arrazoi bideetan ez bai dira oinarritu eta beraien jarraitzaileak ez dituzte hezi etika egoki baten barnean. Hortik ikusten daitakenez, burutza eraman dutenek heurak, badirudi, ez dakitela beste era batean jokatzeko. Gure herri honi, hausketak baino beharrezkoago ez ote zaizkio osakuntzak?, guzian indarrez bake bidezko eraikuntza lanak bideratuz?

Su etenaren aurrean, nire ustez, alderdi abertzaleek harrera ona izan dute. Agian, indarkeriaren ondoreak, gure herriak bere lepotik gehien sufritu beharra izan duelako.

Ezkorren aldetiko ikuskera, nire ustez, beste bide batetik dijoa, bestela ez da erraz ulertzen norainoko bake beharra duten; espainiarrek ez ezik bertako askoek ere, argi bai dute gure herriaren zatiketan ETA-k edo MLNV-ek zer kalde egin dion abertzaletasunari. Egiten ari diren azalpenetan nabari denez.

Egia da ahaztu ezinezko zaigula herio-

nean hartu ez duenez. Baina ez; erabaki zen eta kitto! Hortik sortzen zaizkigu orain Autonomia garatze orduko tirabirak eta elebitasunaren iskanbilak. Horrez gainera, burujabetzarenean zer esanik ere ez. Demokrazia hertsia benetan, berez hertsia direnak jarri digutena.

Su etena nahi bada, guzientzat beharrezkoa zaigunez, hertsitasunak eta itsutasunak uztea komenigarri da, elkarren arteko harreman eta elkarrizketetik bake bideruntza hurbiltzeko.

Baina batzuren kaltegeitek oroitzean,

lege guzien gainetik beste indarkeria bat sortuz. Hori ez zen bidezko. Eta inolako kontrolik gabe, antzinako inkisizioan bezala, sorgin ehizari bidea irekiz. Marey gizagaxoaren bizia larri ibili zen, beste Estatu batekoa izan ez balitz nork daki Goena edo Oinederrak bezalako heriotza ez ote zuen izango.

Bestalde, Lasa eta Zabala ere, ETA-ko gaizkileak baldin baziren, Baionan bahitu ondotik zergatik ez zituzten epaileen esku jarri? Horiek ere bazituzten beraien familiak eta galera guzietakoek bezala hondaturik eta saminez gelditu ziren.

Horrez gainera, legebestalde, euskaltzaleok ere, gure hizkuntza jatorren alde ibiltzearen, Franco-ren ditadura garaian erabilitako fitxeroetan oinarriturik, batzuk atxilotuak eta laster kaleratuak, baina beste asko komisaldietan edo kuarteletan legezko balitz bezala susmo hutsagatik itaunketak egitea. Lekukoak erakusten dizkigunez, GAL-en sorreratik lasterba zuten horren berri probintzietako gobernadoreek.

Kontutan har, nor edo nortzuk atera diren GAL-en ekintza haien agintari zirenen alde? Ez noski beren leporako pekatuak gabeak. Agintariak ez ote ziren herriak hautatuak? Horrez gainera, pentsa zeintzuk egin zituzten lapurketak Estatuaren erresebak diru poltsatik. Oraindik ere, demokratak omen dira? Eta hor dabilta? demokraten batasuna? eskatuz.

Berri lotsagarri guzi horiek pasa ziren, bai. Baina izan bidez gertatuok guzian gogotarako, bide zuzena har ditzagun eta elkarri amore emanaz, ahalik zuzenen berrikuntza bideratzeko.


ETA-ko presoak Euskal Herri ingurura hurbiltzea, legezko da, baina ez da bete nahi. Aldiz, GAL-ekoek nahi duten presondegia hautatzeko eskubidea dute. Demokraten artean hori nola ulertzen da. Legearen aurrean guziok berdina gara. Gertatu den hori, ez da zuzena. Gure esaldi batek dioenez: ez inori opa, norberarentzat opagarria ez denik.

Gauzak zuzendu nahi baditugu, ereduak hor daude Europako beste zenbait Estatutan, herrien Europa lortu nahirik. Historia ere hor dugu eta

herrien jatorri eta izakerak ere bai. Gogoa izan zapalkuntzetatik sortzen direla indarkeriaren ezbeharrak, luzarora inori onik egiten ez diotenak.

Beharrezko zaizkigu su etena eta herrioren anaitasuna, elkaren artean lor dezakeguna. Beraz, ahalegindu gaiten, su etenaren aurrean, zintotasunez eta mugarik jarri gabe, fidantza osoa jarritz eta bakearen alde behar diren urratsak emanaz.

Europa Batua, bere orokortasunean, norbera eta norberaren herritik hasiaz osatu beharra bai dugu. ■



tzak eraman zituztenen familien hondamena eta samindura. Ez da gutiagorako. Baina hor eta Konstituzioan arrazoi nagusiak oinarriturik jarraitzeak ez garamatza zuzenean hain beharrezko zaigun bake bideruntza.

Nonbait, ez dira oroiten edo ez dute oroitu nahi joan zen mendean zenbat Konstituzio frogatu ziren. Konstituzioa beharrezkoa iruditzen zait, baina ez sakratua. Gutiago orandik Nazio Batuek 1948an azaldu zuten Giza eskubideen agiriak bere 2. artikuluan 3. atalean dioena 1978ko Konstituzioak bere bar-

besteenak ere kontutan hartu beharrezko dira. Estado de Derecho deritzana ere, sakratutzat omen.

Baina Estatuaren gobernariengandik legedia hautsiz sortu zuten GAL, kontrolik gabeko indarkeria, ez da talde bategandik sortutakoa baino gutiago. Gobernariak, beste inork baino lehen gorde behar bai dute legeak ematen dien aukeratik eta zuzentasunetik alde gabe jarraitzea.

GAL ordea, Franco-ren garaiko makinariak baliatu zen, bat-batean indarkeriaren aurka jarritz, baina Estatu bertatik